

IZEN POLITA

IZEN POLITA

Joan da urteko udan izan zan:

Nire erriko merkatuan, saltzaile batek bere ondoko andra saltzaile biri auxe esan eutsen:

—AINOA, ¿en dónde lleva la H?

—Entre la A y la I— erantzun eban bizkor batak.

—Sí: entre las dos vocales—. Geitu eban arin bigarreneak.

Gizon a “AHINOA” ori grabatzera joiala ikusirik, euron artean esku artu ta neure hatxelogia jakintza agertzeko nengoela, obeto uste izanik isildu egin nintzan. Izan be, iñork ez eustan hatxetegi aretarako kandelarik emon. Iru saltzaileok “ADOS” egozan eta domiña edo pultsera aren jabea be, ez jakin zelango “AINOA” ren eritxiko izango zan.

Egun bi barru, DEIA izparringi berean, “AINOA” izen ori leku bitan agertu zan eta bakoitzean, H’a leku diferenteetan sartuta etorren: “HAINOA” ta “AINHOA”. Eta andik illa batzuetara, aurten, “Lauaxeta” ikas-tolearen aldizkariak, bere “O” zenbakian, “AHINOA”, olantxe dakarrela ikusi neban: gure merkatuko modara.

Modak moda, Lapurdi’ko erri xarmentaren izena lenengoz idatzia, 1238’an agertzen ei da ta H barik: AYN OA. Gaur idazten danez, AINHOA, geroago 1264’an agertzen ei da.

Ori olan, urte batzuk dala, Aynhoa’n izan nintzanean, bertako eleiz arduradunak, AYN OA izena ez dala ezarri bear esan euskun; ARANTZA ipini bear dala. Aynoa’ko Ama Birjiña barik, Arantzazuko Ama Birjiña dala ta.

Eritxiak eritxi, Ainoa izen politik gure artean jarraitu egingo dau eta geien baten, H’gaz idatzia ziurretik: Ipar Euzkadi’tik jatorkulako ta gaiñera H orrek euskereari dotoretasuna emon eta... atsa, korta usaiña kentzen dautsolako edo. Ze, H’a gustau egin da. Eta txarrena, euske-reak iñondik iñorako ardurarik emoten ez dautsoenak, gaurko nire irurok lez, H’ak arduratzen dituala: S ta Z ren idearik ez daukienak be, zelan edo alan sartu egin bear Umeeek be, euron erdi euskeran: “jarraitzalea” H dago!

Eta alan da guzti be, goitik bera ezarri egin bear: liburu testuek laguntzarik ez H’a sartu ezik; eta gero, ori ez dala egia.

BELAUSTEGOITIA’tar MAITANE’k

Z E R

Zer zara, zu, ZER euskal gogoa
ama lurretik sortua,
lurraren gatza zugan daukazu
seme onak eratua;
zure ametsa ez da besterik
argiz janztea burua,
t’erri eder bat zaindu oiñean
jakituriz ornidua.

Zure aldeko jende leialak
zaindu nai deustu bizia,
zure bitartez orbiztu dedin
asaben jokabidia;
jakituria eta zentzuna
dira euskaldun argia,
bide ortatik urten ezker
ez da euskaldun erria.

Euskera zara gure argia
alan baita gure-egia,
zure altzoan dozu maitia
gure bizitza aria;
zure bularrez artu genduan
euzkotar dan arnasia,
ain zara eder, ain jakituna
euzko jatorriz urria.

Zure ederrez ez naz aspertzen
ez eta ere arritzen,
zure mendiak ain dira eder
gure gogoak zorutzen;
gure arkaitzak eta arruek
berez dira izketatzen,
euzko buruak eta biotzak
ortik izkuntza urretzen.

PAULIN

EMON ERUAMENA!

Oi dan lez, nago itxarturik.
Illunak inguruan,
Neure aurrian, gau luzia,
¿Eguantza noz geugaz?
Alan ta be, enago urduri
Jauna da beti nigaz.
Baltza arria, iñurri baltza,
baltza gaua, benetan;
Zuk ikusten dozu, Jauna,
Zuk, aren ardurea.

Munduan ¿zenbat geixoak
min-larriz itxartuta?
Arek baño, obeto nago
orregaitik, nik itza.
Zuk emonda gertakerak
dan-danak, gure onurak.
Eskarrak zeuri, Jaun ori.
¿Emon eruamena!

UTARSUS